

KOSTUAK

Aplikazioa garatzea eta mantentzea merke egitea bada helburua, gutxienez 20.000-30.000 euroko inbertsioa beharko da hasieran. Horretarako 30.000 euroko mailegu bat eskatu dugu. Hor sartzen dira diseinatzaile eta garatzaileen lanak, bai eta aplikazioa martxan mantentzeko zerbitzari eta datu-gordailuen hileroko gastuak (gutxi gorabehera 100-300 euro hilean).

Horrez gain, marketin kanpainetan ere inbertituko dugu bezeroak erakartzeko (500-1.000 euro inbertitu beharko dira hilean). Bestalde, tokiko denden sari eta deskontuetarako ere diru bat beharko dugu, hasieran behintzat. (300-500 euro hilean). Urtean behin aplikazioa hobetzeko eta segurtasuna eguneratzeko kostua edukiko genuke (1.000-2.000 euro). Laburbilduz, kostu handiena aplikazioaren sorreran eta honen diseinu eta funtzioetan egongo da. Izan ere, horretarako aditu bat kontratau beharko genuke.

Hala ere, hasieran dendei diru bat eman beharko diegu sari eta deskontuen kostuekin laguntzeko eta gudan konfiantza hartzeko. Azkenik, marketin kanpainetan eta publizitatean ere hainbat kostu edukiko ditugu, hauek oso beharrezkoak dira lehiatzeko eta gure produktua ahalik eta bezero kopuru handienara iristeko.